Nola iraun bizirik, ahitzen ari den mundu batean

Emilio Ruizek eta Ana Mirallesek* Waluk*-en jarraipena sortu dute, adin guztietarako ipuin samur bat. Lehen liburukia Frantzian, Brasilen eta Ameriketako Estatu Batuetan argitaratu dute dagoeneko.

Waluk eta Eskimo lagun banaezinak dira. Waluk hartz gaztea da, eta Eskimo, oso zaharra. Bien artean, modua topatu dute inguru guztiz bortitz batean bizirauteko: baten bizkortasuna eta bestearen eskarmentua batzea. Eskimok iparralderago joatea erabaki du, ehiza-leku hobeen bila. Horretarako, itsasoa zeharkatu behar dute. Walukek igeri egitea zoragarria dela deskubrituko du, baina ezin du susmatu zein luzea izan daitekeen Artikoko bidaia. Zenbait egunez jan gabe eta lo egin gabe egon ondoren, izotz puska batean babestuko dira, akiturik, eta izotz horrek eramango ditu, salbamendu-txalupa bat bailitzan, paisaia berri eta guztiz mortu batera…

Astiberrik 2017an argitaratu zuen *Waluk* lanaren jarraipena da *Waluk 2. Bidaia handia* hau. Saileko lehen liburukia Frantzian, Brasilen eta AEBetan ere argitaratu dute, eta bigarren hau, Teresa Valero komikigileak adierazi duen moduan, mota eta adin



Waluk 2. Bidaia handia

Gidoia: Emilio Ruiz
Marrazkiak: Ana Miralles
Itzulpena: Bego Montorio
Astiberri Ediciones. Bilbo, 2018
Kolorea. Azal gogorra. Formatu etzana
72 orrialde. 29 x 21 cm. 16 euro
Nobela Grafikoa bilduma
ISBN: 978-84-16880-89-8

Azaroaren 29an salgai

guztietako irakurleei zuzenduta dago, zeren "krisian den mundu batean bizirauteko borrokan ari diren hartz zurien istorio hau geure istorioa ere bai baita. Eskimo zaharraren nekea eta samurtasuna gure aitita-amamenak dira. Valkia hartz-amaren indarra gure amen indar bera da. Eta Waluk txikiaren poza, nekeak eta itxaropenak gure gazteenak dira. Gure mundua da ahitzen ari den mundu hori.

"Emiliok bikain erabiltzen ditu hitzak –gehitzen du Teresa Valerok–. Haren elkarrizketa naturalistek, umore eta samurtasunez mukuru, sinesgarri egiten dituzte hartzek bizi dituzten egoera zenbaitetan ahaztezinak. Anak, bere aldetik, inuitek aipatzen dituzten elurraren kolore guztiak ezagutzen ditu. Eta gai da hartz bakoitzari nortasun bakana emateko, zeregin handiei aurre egiten dieten izakiek baino ez daukaten adierazkortasun sendo eta sakonaz apaintzeko".

"Emilio Ruiz gai unibertsalez mintzo zaigu: bizitzaren ikastaldiaz, hirugarren adinaz edo naturaren arau gupidagabeez. Ana Miralles *cartoon* estilotik bezainbeste urruntzen da dokumentalismotik. Bizitasunaren, sinesgarritasunaren eta fantasiaren arteko oreka zailari eusten dio *Waluk*-ek, eta hala, irakurle askotarikoentzat da egokia.

Yexus, *Revista Z*

"Naturarekiko maitasun benetakoa dario *Waluk*-i, eta sutsuki defendatzen du animaliek euren ingurunean bizitzeko duten eskubidea".

Koldo Azpitarte, *Mondosonoro*



Emilio Ruiz (Santander, 1960). Arte Ederretan lizentziatu zen Valentziako Universidad Politécnica-n, eta argazkilari lanbideari ekin zion 1982an. Hasiera batean, publizitatearen alorrean jardun zuen, eta, geroago, dantza eta antzerkirako argazkilari. Aurrerago, diapositibekin ikus-entzunezkoak egiten berezitu zen, antzerki, dantza eta erakusketetako eszenografien atzealdeetarako. Bideoarteko zenbait dokumental eta proposamen ere egin ditu, eta aldi berean *Cuéntame cómo pasó* telesailerako diseinatzaile eta dokumentalista jardun zuen (2001-2003). Komikiaren alorrean, zenbait gidoi egin ditu Ana Mirallesekin batera: *El brillo de una mirada* (Casset, 1990) eta *En busca del unicornio* (Glénat, 1996-1999) trilogia argitaratu ditu; azken hori Juan Eslava Galán-en izen bereko nobelaren (1987ko Planeta saria) egokitzapena da, eta Diario de Avisos-en gidoi onenaren saria irabazi zuen 1998an. 2009an *De mano en mano* (De Ponent) argitaratu zuten elkarrekin Ana Mirallesek eta Emilio Ruizek, eta berriro heldu diote elkarlanari Waluken albumekin: *Wáluk* (Astiberri, 2011; euskaraz, 2017) eta *Wáluk 2. La gran travesía* (Astiberri, 2017). *Muraqqa'* albuma ere egin zuten (12bis, 2011), non emakumezko artista baten bizipenak kontatzen dituzten, XVII. mendearen hastapenetan, Jahangir errege mogolaren gortean. Gaur egun, Emilio eta Ana haien hartzkume kutunaren hirugarren abentura amaitzen ari dira, eta 2019an plazaratuko du Astiberrik.

Ana Miralles (Madril, 1959). Arte Ederretan lizentziatu zen, Valentziako Universidad Politécnica-n. Komikiak eta ilustrazioak ditu lanbide 1982az geroztik. Aldizkari ugaritan argitaratu ditu bere lanak, besteak beste, *Rambla*, *Madriz*, *Cairo*, *Marca Acme*, *Blue Press*, *Marie-Claire España*, *Vogue España* eta *Je Bouquine*. Autore geldiezina eta emankorra da, eta bere ibilbide profesionalaren hastapenetako obrak haur eta gazteentzako liburuetan, testu liburuetan, afixetan, liburu azaletan, aldizkarietan, album kolektiboetan, publizitatean, esku-orrietan, serigrafietan eta komunikazio grafikoarekin zerikusia duten era guztietako lanetan ikus daitezke; antzerkirako eta zinemarako ere jardun du: jantzien diseinua, eszenografietako atzealdeak eta gidoi grafikoak. Komiki albumak eta bildumak argitaratu ditu bai Espainiako baita Frantziako merkaturako ere. *Marruecos, mon amour* eta *Eva Medusa* trilogia (Glénat) sortu zituen Antonio Seguraren gidoiarekin, eta Emilio Ruizekin elkarlanean jardun du zenbaitetan. Mende berriaren hasieran, *Djinn* (Dargaud/Norma) sortari ekin zion, Jean Dufaux-en gidoiarekin, eta dagoeneko argitaratu dira bilduma osatzen duten hamahiru aleak. Bartzelonako Azokako Sari Nagusia eskuratu zuen Ana Mirallesek 2009an, komikigintzan izan duen ibilbide luzearen aitormenez.

Saileko lehen liburukia

Waluk
56 orrialde. 15 €
ISBN: 978-84-16880-38-6


ALDE HEMENDIK, ZUEK AKABATZEA NAHI EZ BADUZUE!
GRRRRRRRR
PLAFF
KANPORA!!
EZ JO, EZ DIZUT MINIK EGIN NAHI!
ZURE BALEATZAR HORREN ZATITXO BAT BAINO EZ DUGU NAHI.
INOLA ERE EZ!
BALEA HORI NIREA ETA NIRE KUMEENA DA, ETA EZ DIZUET UTZIKO ZUEN MUTUR ZIKINAK HURBILTZEN!
ADITU DUZU?
BAI. ZUENA DA OSORIK.
BAINA, BALEA HORREKIN, NANOOK HARTZ HANDIA BERA ASEKO LITZATEKE.


JANARI ASKO DA, ADOS, BAINA, NOLA FIDATUKO NAIZ ZUEKIN? ARRAK APROPETXATEGI HUTSAK ZARETE, ETA, DESKUIDATUZ GERO, JAN EGITEN DIZKIGUZUE KUMEAK.
MESEDEZ! ZER DIOZU?! EZ HORIXE!
BAI, BAI! ETA GERO, BAZOAZTE LASAI-LASAI, "EROALDIAK HARTU NAU" AITZAKIA JARRITA. EDO "FOKA BAT ZELA PENTSATU DUT". BA KONTUZ NIREKIN! NI, UALKIA HARTZA, EDONOR AKABATZEKO PREST NAGO KUMEAK BADESTEKO!
LASAI, UALKIA. AR GUZTIAK EZ GARA BERDINAK...
IKUSTEN?
LETAGIN BAKARRA GERATZEN ZAIT, ETA GAZTETXO HORRI ESKER BIZI NAIZ, BERAK USNATZEN BAITITU FOKAK NIRE ORDEZ.
ATZAPARROK ERE, EZ DITUT JADA GARAI BATEKOAK. HAU MORTSA ITZEL BATEK HAUTSI ZIDAN, LETAGINAZ, ETA BESTE HAU...
...HARRI BATEN KONTRA JOTA HONDATU ZITZAIDAN. TONTAKERIA BAT.
NAHIKOA!!
JAN DEZAKEZUE, BAINA, KONTUZ, EZTA HURBILDU ERE KUMEENGANA. ADITU DUZUE?